



CAMPAÑA DE MISIONES DIOCESANAS 2017

EL MUNDO, UNA FAMILIA. HAUEK DIRA NIRE ANAI-ARREBAK

Más allá de las palabras

Al término “misiones” se le pueden aplicar calificativos diversos, en función del destino de la misión, de la cualidad de la misma, de su calidad, del sujeto que la decidió... Cuando hablamos de “misiones diocesanas”, estamos entendiendo que las diócesis envían a alguien a hacer algo porque ellas son previamente enviadas a hacer lo mismo.

Es posible que “diócesis”, para algunos, suene a forma organizativa en el organigrama de algo más grande que es la Iglesia. Y entonces, es la Iglesia grande la que manda de misión a las iglesias pequeñas y estas, a su vez, infunden en sus diocesanos la pertinencia de esa misión.

Si nos ponemos a pensar que Iglesia y diócesis no son sobre todo formas jurídicas, sino conjunto de personas que creen en Jesucristo y en el proyecto de Reino que nos comunicó y regaló, entonces la misión y las misiones son realidades que se asientan en el corazón, donde se cuecen las decisiones que alumbran la vida, sin desechar la luz que el pensamiento aporta para que el amor no sea ciego.

Tiempo hubo en que, en hablando de misiones, pensábamos siempre en lugares remotos, en culturas muy distintas a la nuestra, en razas desconocidas por nuestras calles, en idiomas no europeos, en la misionera o el misionero vestido de blanco a la salida de una capilla con un enramado por techumbre. Muchos crecimos empujando aquellas misiones hasta con la propina del domingo y terminamos subiéndonos a un barco o un avión para llevar lejos, en la geografía, lo que nuestras diócesis nos daban para llevar: la fe en Jesucristo y el deseo de un mundo en que todas las personas pudieran vivir su dignidad de tales.

Claro: todo eso venía de aquello que Jesús dijo a sus panas de entonces: vayan por todo el mundo y llévenles la noticia de que tienen un Padre que les quiere. Y, como signo de que forman parte de la familia de ese Padre, bautícenlos con agua, que el Espíritu estará con ellos, aunque no se lo vea. Pero, pensándolo bien, resulta que el Maestro les mandó a esta misión “por todo el mundo”, pero antes les había mandado a una misión “entre los de casa”. O sea que estaban entrenados porque lo que iban a decir y vivir “por todo el mundo” era lo mismo que habían vivido ya en sus pueblos, en sus trabajos, en sus familias, en sus formas de entender la vida y la religión... Y, como eso les había llenado de sentido sus vidas, se animaron a compartirlo con los hermanos “de lejos”.

Ir por el mundo con la buena noticia de un Dios que ama eficazmente a sus hijos exige que, quien misiona, sea una expresión viva de esa familia de Dios, nunca perfecta, siempre mejorable que, entre otras cosas, necesita incorporar a los distintos para que sea de veras la familia del Dios de Jesús, con una casa de familia en la que quepan todos, con una sala-hospital para quienes llegan golpeados por la vida y una sala de partos para las nuevas sonrisas y sus madres. Con una oficina de ingeniería para levantar viviendas asequibles o barrer los escombros de terremotos y aludes. Con escuelas de amor. Con músicas en todos los ritmos porque Dios no cabe en ningún compás marcado.

Si las familias de creyentes de aquí son de verdad seguidoras de Jesús de Nazaret, seguirá habiendo mujeres y hombres que acepten ir “de misión por todo el mundo”. Si no activamos la misión hacia las familias jóvenes de nuestro inmediato entorno, es posible que no falten jóvenes que se apunten a las ONGs, que son necesarias, pero que no llevarán al amigo Jesús como buena noticia. Él es una opción desde una fe. Una fe que abre ventanas a las concretas realidades de cada día, desde las que Dios nos habla. Y nos envía.

Juan Ignacio Vara

ELIZBARRUTIETAKO KANPAINA



El mundo, una familia. Hauek dira nire anai-arrebak

Hitzetatik haratago

“Misioak” hitzari hainbat kalifikatzaile ezar dakiok, misioaren xedearen, bere ezaugarriaren, bere kalitatearen, erabaki zuen egile eta eragilearen... arabera. “Elizbarrutietako misioak” diogunean, aurretik gauza bera egitera bidaliak izan direlako norbait zerbait egitera bidaltzen duten elizbarrutiez ari gara.

Baliteke “elizbarrutia” batzuentzat, Eliza baino handiagoa den zerbaiten organigraman antolatzeke era izatea. Eta orduan, Eliza handia da eliza txikiak misiora bidaltzen dituen eta hauek, era berean, misio horren egokitasuna sorrarazten dute elizbarrutiko kideen artean.

Eliza eta elizbarrutia molde juridikoak ez ezik Jesukristorengan eta helarazi eta oparitu zigun Erreinuaren egitasmoan sinesten dutenen taldea direla pentsatzen badugu, orduan misioa eta misioak bihotzean, bizia dakarten erabakiak hartzen diren lekuan finkatzen diren errealitateak dira, maitasuna itsua izan ez dadin pentsamenduak dakarren argia baztertu gabe.

Garai batean, misioez hitz egiten zenean, urruneko lekuetan pentsatzen genuen, gure kulturatik guztiz desberdinak diren kulturetan, gure kaleetan ikusten ez ziren arrazetan, hizkuntza ez europarretan, zuhaitzen adarrez egindako teilatua zuen kaperatik zuriz jantzita ateratzen zen misiolariarengan. Asko eta asko hazi ginen misio haiek bultzatuz, baita igandeko propinarekin ere, eta, azkenean, itsasontzi edo hegazkina hartu genuen elizbarrutiek eramateko eman zigutena, hau da, Jesukristorenganako fedea eta gizon eta emakume guztiok dagokigun duintasuna bizitzeko aukera emango zigun munduaren nahia geografian urrun zeuden lekuetara eramateko.

Jakina: Jesusek orduko lagunei esan zienetik dator zetorren guzti hau: zoazte mundu osoan zehar eta eraman iezaiezue berria: Maite dituen Aita dutela. Eta Aita horren familiako kide direla baieztatzen duen zeinu bezala, batea itzazue urez, Espiritu Santua beraiekin egongo baita, nahiz eta ez ikusi. Baina, ondo pentsaturik, Maisuak “munduan barrena” bidali zituen misiora, baina horren aurretik “etxeko artera”. Beraz, entrenatuta zeuden, izan ere, “munduan barrena” esan eta bizi izango zutena beraien herrietan, lanetan, familietan, bizitza eta erlijioa ulertzeko eretan... bizi izandakoa zelako. Eta ‘etxeko’ bizipen horrek beraien bizitzak zentzuz bete zituenez, “urruneko” anai-arrebekin konpartitzera animatu ziren.

Bere seme-alabak eraginkortasunez maite dituen Jainkoaren berri ona mundu osoan iragartzeak zera eskatzen du: misio hori garatzeko ardura duena Jainkoaren familia horren adierazpen bizi izan dadila, inoiz ez perfektua, beti hobe daitekeena, besteak beste desberdinak barne hartuko dituen benetan Jesusen Jainkoaren familia izateko; denentzako lekua izango duen familiaren etxearekin, bizitzan kolpatutakoak artatzeko gela-ospitalearekin, eta erditze-gelarekin irribarre berrientzat eta beraien amentzat. Injinerutza-bulegoarekin, etxebizitza eskuragarriak altxatzeko edo lurrikara eta elur-jauzien hondakinak garbitzeko. Maitasunezko eskolekin. Erritmo guztietako musikekin, Jainkoa ez delako inongo konpas markatutan kabitzen.

Hemengo fededunen familiak benetan Nazaretoko Jesusen jarraitzaile badira, izango da aurrerantzean ere “munduan barrena misioan” joatea onartuko duen emakume eta gizonik. Gure inguruko familia gazteenganako misioa aktibatzen ez badugu, ez da gazterik faltako ezinbesteko diren GKEetan, baina ez dute Jesus adiskidea berri on bezala eramango. Fede jakin bateko aukera da Bera. Eguneroko errealitate zehatzei leihoak irekitzen dizkien fedea; eta leiho horietatik hitz egiten digu eta bidaltzen gaitu Jainkoak.